

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Astelehenean, maiatzak 4, eskola-garraioa kontrolatzeko beste kanpaina bati ekingo zaio

Hiru astez luzatuko da, eta ibilgailuen segurtasun-elementuei eta baldintza teknikoei erreparatuko zaie bereziki

Jueves, 30 de abril de 2015

Astelehenean, maiatzak 4, eskola-garraioa kontrolatzeko beste kanpaina bati ekingo zaio, ikasturte honetako bigarrena, eta hiru astez luzatuko da. Ibilgailuen segurtasun-elementuei eta baldintza teknikoei erreparatuko zaie bereziki (ate-irekiera, larrialdiko dispositiboak, gehieneko antzinatasuna edo pneumatikoen egoera), segurtasun-uhala erabiltzeko beharra azpimarratzeaz gain.



Eskola-garraioa kontrolatzeko kanpainak Bide Segurtasuneko Nafarroako Strategiaren eta Nafarroako Garraioen Ikuskaritzaren barnean sartzen dira, eta Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Iruñeko Udaltzaingoak parte hartzen dute. Kanpainan zehar, Nafarroa guztiko ikastetxe publiko nahiz itunpekoen eskola-garraioetako zerbitzuak kontrolatzen dira. Zehazki, Guardia Zibilak erdialdeko eta ipar-mendebaldeko guneak kontrolatuko ditu, eta Foruzaingoak hegoaldea eta ekialdea. 2013/2014 ikasturtean 133 zentrotako 490 ibilgailu kontrolatu ziren, guztira.

Garraio-enpresek administrazioaren baimena behar dute, eta baimen hori Lurralde, Mugikortasun eta Etxebizitzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ematen du, hala badagokio. Derrigorrezkoa da, eta hura emateko enpresak honako hau egiaztatu behar du: ibilgailuen antzinatasuna, haien ezaugarri teknikoak, dagokien ibilgailuen ikuskapen teknikoa izatea eta mugarik gabeko erantzukizun zibileko aseguruia izatea.

Administrazioaren baimen horrez gain, beharrezkotzat jotzen da garraio-zerbitzuak kontrolatzea haiek emateko unean, legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla ziurtatzeko xedearekin.

Hautemandako arau-hausteen izapidetzea Garraioen Zuzendaritza Nagusiak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak egingo du, hautsitako araudiaren arabera.

Laguntzaileak

Kanpaina honetan, aurrekoan bezala, laguntzailearen irudian azpimarra egingo da bereziki, apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan araututa dagoena, eskola-garraioko eta adingabeen garraioko segurtasun-baldintzei buruzkoa. Funtsezkoa da pertsona horrek ibilgailuko segurtasun-mekanismoak zein diren jakitea larrialdiren bat dagoenean, leku egokian esertzea ibilgailuaren barnean, eta bere eginkizuna ongi egitea, haien artean eta bereziki kontrol- eta zaintza-lana ibilgailura igo eta jaisteko uneetan.

Alde horretatik, aipagarria da Nafarroako Garraio eta Logistika Enpresa Elkarteak iragan hilean egindako jardunaldiak. Jardunaldi horien helburua laguntzaile, enpresaburu eta zerbitzu-mota hori eskaintzen duten ikastetxeen beraien prestakuntza hobetzea zen. Gainera, aurtengo Garraioen Ikuskapen Planean aurreikusita dago antzeko jardunaldiak Nafarroako beste toki batzuetan egitea.

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko eta Sustapeneko departamentuek, iragan urtarrilean, [segurtasun-uhalaren erabilerari buruzko sentsibilizazio-kanpaina](#) abian jarri zuten hiriarteko eta eskolako garraioko autobusetan.